



EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA
Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea

DEPARTAMENTO DE ECONOMIA
Y HACIENDA
Junta Asesora de Contratación Pública

7/2022 TXOSTENA, UZTAILAREN 5EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.

XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, URA-URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ANTOLAKETA- ETA FUNTZIONAMENDU-ESTATUTUEN ALDAKETA ONARTZEN DUENA.

I.- AURREKARIAK.

2022ko ekainaren 17an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Aholkularitza Juridikoak URA-Uraren Euskal Agentziaren antolaketa- eta funtzionamendu-estatutuen aldaketa onartzen duen dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatu zuen.

Eskaera Ondare eta Kontratazioko zuzendariari egin zaio.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da espedientea (erreferentzia: DNCG_DEC_1908/22_05).

II. – EDUKIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko martxoaren 2ko Aginduaren bidez, URA-Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onesteko Dekretua egiteko prozedurari ekin zitzaion.

Agindu horrek, besteak beste, hau ebazten du:

«**LEHENA:** Uraren Euskal Agentziaren estatutuak, martxoaren 2ko 25/2015 Dekretuaren bidez onetsitakoak, aldatzeko prozedurari hasiera ematea.»

Era berean, Agindu horrek honako hau adierazten du xedapen-zatian, epigrafe hau duela: «**LAUGARRENA:** Abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako esparru juridikoaren arabera gauzatuko da prestatzeko prozedura. Hortaz, behar diren izapide hauek egingo dira proiektuari buruz.»:

«5.- *Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko.*»

Horren arabera, bidezkotzat jo da orain egin den txostena eskatzea, sektore publikoko kontratazioaren araubide juridikoari eragiten dioten proiektuaren alderdien arabera mugatuta.

III.- GOGOETA JURIDIKOAK.

1.- Aholku Batzordearen eskumena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a).1 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari eskumen hau esleitzen dio: nahitaez informatzea Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak.

Halaber, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretu horren 30.2.a) artikuluan, honako eginkizun hau esleitzen zaio, besteak beste, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Batzorde Iraunkorrari: xedapen-proiektuei buruzko aholkularitza-eginkizuna, betiere kontratazioaren alorrekoa bada eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateak sortzea edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko entitateen egitura organikoa eta funtzionala arautzea badute xede.

Bestalde, URA-Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa sortu zen, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen arabera. Aipatu Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, URA-Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa sortzen da, nortasun juridiko propioa eta bere funtzioak betetzeko jarduteko gaitasun osoa izanda, eta ingurumenaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari dago atxikia. Era berean, lege honetan ezarritakoak eta Agentziaren beraren

estatutuak arautuko dute Agentzia. Agentziaren estatutua Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko da, ingurumenaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.

Lege horren 6.1 artikuluan hau xedatzen da: «*Uraren Euskal Agentzia azaroaren 26ko 30/1992 Legeari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenari, lotuko zaio bere jardunean, administrazioaren ahalak erabiltzen dituenean, eta uraren arloan indarrean diren araei, lege honi eta aipatutako araudiaren garapeneko xedapenei. Bere gainerako jardunetan Zuzenbide pribatuari lotuko zaio.*»

Horrelako araei dagokien bezala, dekretu-proiektuaren xedapenek antolaketa-eduki handia izaten dute, eta, ildo horretan, azpimarratzekoak dira kontratazioaren arloari lotutako alderdiak, dekretu-proiektuan eranskin gisa jaso diren URAREN estatutuen 4.2, 9.2.c), 10.3.n) eta 18.1, 2 eta 3 artikuluetan erregulatzen direnak.

Horri jarraikiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Legearen 27.a).1 eta 30.2.a) artikuluen babesean, txosten hau ematen da, aipaturiko arauetan xedatutakoa betetzeko. Txosten honek soil-soilik eragiten die proiektuan sektore publikoaren kontratazioaren araubide juridikoari eragiten dioten alderdiei, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honen eskumena kontratazio publikoaren gai propioetara mugatzen baita.

2.- URA-Uraren Euskal Agentziaren kontratu-jardueraren araubidea

URA-Uraren Euskal Agentziaren estatutuak aldatzeko dekretu-proiektuaren 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, «*Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ingurumenaren arloan eskumena duen sailari atxikia, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa duena, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearekin bat etorritik, eta indarrean dauden gainerako legeak eta lege horiek esleitzen dizkioten eginkizunak betetzeko.*»

Estatutuetakoa lehen artikuluko 3. eta 4. apartatuetan adierazitakoaren arabera:

«*3.- Agentziaren jarduera, kanpoko harremanetan, oro har, zuzenbide zibilaren, merkataritza-zuzenbidearen eta lan-zuzenbidearen pean egongo da, 1/2006 Uraren*

Legearen 6.2 artikuluan jasotako egintzetan izan ezik; egintza horiek ahalmen publikoak gauzatzea dakarte, eta, beraz, zuzenbide publikoaren mende daude.

4.- Agentziari aplikagarri zaion araubide juridikoaren baitan sartzen dira ekainaren 23ko 1/2006 Uraren Legeak ezarritako arauak, estatutu hauek eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoan integratutako zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplikagarri zaizkien gainerako lege eta xedapen orokorrak. Zehazki, aipatutako lege horren 6.3 artikuluekin bat, Agentzia zuzenbide publikoaren mende egongo da zerga-arloan, eta aurrekontu-araubideari, ekonomia-kontrolari, ondareari eta kontratazioari dagokienez.»

Kontratazio-arloan aplikagarria den izaera publikoko araudiari dagokionez, aipamen berezi eta berariazko hau egitea aholkatzen da, segurtasun juridikoaren ondorioetarako: kontratazioaren arloan, aipatu Agentziari kontratazio publikoaren arloko legeria eta hura garatzen duen araudia aplikatuko zaizkio. Kasu honetan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea da aplikatzekoa; horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Nolanahi ere, estatutuak aldatzeko proiektuaren 18. artikulua URA-Uraren Euskal Agentziaren kontratazio-araubidea arautzen du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta hura garatzeko arauetan kontratazio publikoaren arloan jasotako legeriarekin bat datozen aurreikuspenekin, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8. eta 9. artikuluetan xedatutakoarekin ere.

Horrela, aipatu 8. artikulua kide anitzeko organo horien osaera arautzen du, bai eta haietako kideen izendapena ere; 9. artikulua, berriz, organoaren funtzioen irismena zehazten du.

Zehazki, 8. artikulua xedatzen duenez, adjudikazio-prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publizitadedunetan kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute, eta mahai horren eskumena izango da eskaintzen balorazioa egitea; halaber, kontratazio-organoari egokituko zaio kontratazio-mahaiko

kideak izendatzea, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, hura Bulegoaren titularrak aukeratuko baitu.

Kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izenda daitezke, edo berariaz ere bai, justu kontratu bakoitza adjudikatzeko. Era berean, zehazten da kontratazio-mahaiko kideak behin betiko izendatzen badira edo mahaiari kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen sailaren titularraren eta kasuan kasuko sailaren titularraren edo erakundea atxikita dagoen sailaren titularraren baterako agindu bidez eratuko dela kontratazio-mahaia, eta agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela.

Aurreikusita dago, orobat, URA-Uraren Euskal Agentziak bere jardura egokitu behar duela botere adjudikatzailleentzat ezarritako arauetara; izan ere, botere horiek administrazio publikotzat jotzen dira sektore publikoko kontratuei buruzko araudiaren ondorioetarako. Bada, aurreikuspen hori bat dator Kontratazio Publikoaren Aholkularitza Batzorde honek martxoaren 12ko 3/2018 txostenean atera zituen ondorioekin. Hain zuzen ere, SPKLren 3. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 2. artikulua aztertu ondoren egin zituen txosten hori batzorde honek, erakunde publiko enpresarialeki kontratazio publikoaren arloan aplikatu beharreko araubideari dagokionez.

Gainera, irizpide hori errepikatu egin da Batzorde honek egindako beste txosten batzuetan, txosten honen xede bera duten arau-proiektuei dagokienez; esate baterako, azaroaren 3ko 13/2021 Txostena, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen Osoko Bilkurarena, «Aukerak, Agencia Vasca de Reinserción Social / Gizartearen Euskal Agentzia» erakundearen antolaketa- eta funtzionamendu-estatutuak onartzeko dekretu-proiektuari buruzkoa.

Era berean, eta arestian adierazitakoari kalterik egin gabe, 4.2, 9.2.c) eta 10.3.n) artikuluek kontratazio publikoaren zenbait alderdi ere jorratzen dituzte.

Horrela, 4.2 artikulua URAREN funtzioei buruzkoa da eta modu honetan aurreikusten du haiek gauzatzeko modua: «(...) *kudeaketa-mandatu bidez edo ordenamendu juridikoa aplikatzearen ondorioz legokiokeen beste edozein ahalmen-*

erabilerako modalitatearen bidez.» Hala ere, gogorarazi behar dugu espresio hori ezin dela hartu Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitako kudeaketa-gomendioez ariko balitz bezala, gomendio horien subjektuak administrazio-organoak eta zuzenbide publikoko erakundeak direlako (URA-Uraren Euskal Agentziak ez du horrelako izaera juridikorik, ordea) eta gomendioek ezin dituztelako xedetzat eduki sektore publikoko kontratuei buruzko legerian araututako kontratuen berezko prestazioak.

Azkenik, 4.2, 9.2.c) eta 10.3.n) artikuluetan, Administrazio Kontseiluaren eta Zuzendaritza Nagusiaren kontratazioan jarduteko ahala aitortzen da, kondizio jakin batzuetan.

3.- Kontratazio-organoa.

Hau xedatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 6. artikuluan:

«Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak; eta erakunde autonomoetan eta Administrazio Orokorrean ez beste erakundeetan, berriz, ordezkaritza nagusia duten organoak, salbu eta besterik xedatzen ez bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan, edo erakunde horiek sortzeko edo haien funtzionamendua zehazteko arauetan»

Ahalmen hori baliatuta, estatutuen testuan (dekretu-proiektuaren eranskin gisa gehitu da), horri buruzko beharrezkoak diren xedapenak daude, eta hala, URA-Uraren Euskal Agentziaren Zuzendaritzaren ahalmenen artean –estatutuen testuaren 10.3.n) artikuluan–, honako hauek daude:

«Zuzendaritza Nagusiak zuzendu, koordinatu, sustatu eta gainbegiratu ditu Agentziak esleitura dituen funtzioak, eta honako funtzio hauek betetzea dagozkio: (...) Agentziaren kontratazio-organoaren funtzioak betetzea, hargatik kalterik egin gabe Administrazio Kontseiluaren aurretiazko baimenari, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia 5 milioi eurotik gorakoa bada, estatutu hauen 9.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.»

Bestalde, estatutuen 9.2.c) artikulua Administrazio Kontseiluak dituen ahalmenak biltzen ditu, eta honako hau adierazten du:

«Aurreko apartatuan igorpenez aipatutakoez gain, Administrazio Kontseiluari dagokio: (...) Zuzendaritza Nagusiak kontratazio-organo gisa duen izaerari kalte egin gabe, Uraren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 15.l) artikuluekin bat, egin beharreko kontratuaren premia eta aukera baimentzea alde aurretik, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia 5 milioi eurotik gorakoa bada.»

Azkenik, estatutuen testuaren 18. artikulua azken tartekiari dagokionez, kontratazio-mahai bat ezartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan adierazitako parametroen arabera.

Aurreko guztiari dagokionez, URA-Uraren Euskal Agentziaren Estatutuen idazketak SPKLren kontratazioari buruzko aginduak betetzen ditu, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren Araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan xedatutakoa ere.

IV.- ONDORIOA

Horregatik guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA egin da, URA-Uraren Euskal Agentziaren estatutuen aldaketa onesten duen dekretu-proiektuaren edukiari dagokionez.